

2022

Euskara-teknikari eta trebatzaile izateko ikastaro trinkoa

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Irailaren 12tik 24ra	IRAKASLEAK	Labayru Fundazioko hiru teknikari esperientziadun
ORDUTEGIA	Astelehenetik ostiralera 09:00-14:00 eta 16:00-18:00 eta larunbatetan 09:00-13:00	MATRIKULA EPEA	Ekainaren 1etik uztailaren 29ra
TOKIA	Labayru Fundazioa Bilbo-Galdakao errepidea 6 A Bilbo	MATRIKULA NOLA EGIN	944 437 684 eskola@labayru.eus
NORENTZAT	Euskara-teknikari edota trebatzaile-lanetan hasi berriak direnak edo ibili nahi dutenak.	PREZIOA	505 €

PROGRAMA

Administrazioa eta euskara

1. Trebatzailearen lana.
Zer da eta nola antolatu trebakuntza?
2. Administrazioko idazkiak.
3. Estilo-arazoak eta ohiko gramatika-akatsak.

Lehenengo atal honetan, ikasleak trebatzaileen mundura hurbilduko ditugu. Trebakuntza zer den eta administrazioko entitate baten trebakuntza-plana nola antolatzen den ikasiko dute.

Horrez gain, trebakuntzako edukiak landuko dira: administrazioko idazkiak zelan egituratu ikasiko dute, administrazioko testuak idazteko eta itzultzeko estilo-aholkuak emango dizkiegu, eta ohiko gramatika-akatsak zuzentzeko bideak irakatsiko dizkiegu. Izan ere, trebatzaileen lana da erakunde publiko zein pribatu etako langileei euren egunerokotasunean erabiltzen dituzten idazkiak euskaraz zelan egituratu eta zelan idatzi irakastea.

Hizkuntzaren normalizazioa

1. Euskara Planak.
2. Diru-laguntzak.
3. Euskararen kalitate ziurtagiriak.
4. Euskara-elkarteen egitekoa.

Bigarren atalean, ikasleek euskararen erabileraren normalizaziorako dauden planak sakonean ezagutuko dituzte:

- **Udal eta bestelako administrazio publikoetako euskara planak:** udalaren beraren normalizazio-planak, hau da, udalak berak euskaraz (ere) funtziona dezan lortzeko planak (baita beste erakunde publikoentzat ere).
- **ESEP:** udalak herriari eta herritarrei begira egiten duen plana, herritarrak euskaraz bizi ahal izateko, alegia, euskarazko zerbitzuak eskaintzeko plana.
- **Kirolean Euskara Sustatzeko Plana:** Berria!
- **Enpresetako planak:** enpresa pribatuetan zein publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko planak.

Horrez gain, bestelakoak ere ikusiko dira:

- Euskara planetan inplikaturik dauden agenteak, erakundeak, sailak...
- Euskara normalizatzeko **dirulaguntzak**.
- Euskararen kalitate-ziurtagiriak: **Bikain**, Bai Euskarari.
- **Euskara-elkarteen egitekoa:** euskara-elkarteen helburuak, planak, proiektuak, baliabideak... herrietan euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko.

METODOLOGIA

Ikastaro teoriko-praktikoa da. Ikasgai guztietan teoria eta praktika uztartuko dira; baina kasu errearen azterketan eta ariketa praktikoetan indar egiten da.

Bukaeran, talde txikitan, **lan praktikoa** aurkeztu behar dute ikasleek: edukiak bereganatu direla bermatzeko proiektua. Hori da, eskoletan egindakoaz gain, ebaluatzeko erabiliko dena.

Proiektua gainditu eta asistentziaren %80 bete ostean, EusTET egiaztagiria ematen du Labayru Fundazioak.

LAN-POLTSA

Normalizazio-planak gero eta indar handiagoa hartzen doaz, gero eta lan handiagoa dago arlo horretan; horregatik, gero eta euskara-teknikari eta trebatzaile gehiago behar dira, bai euskara batudunak bai bizkaieradunak. Hori dela eta, **Labayruk lan-poltsa zabalduko du ikastaroa amaitzen dutenentzat**. (Oharra, azken 4 urteetan ikasleen %43 kontratatu ditugu).